

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2013ko uztailaren 17ko 5/2013 FORU ARAUA, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa.

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «2013ko uztailaren 17ko 5/2013 Foru Araua, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi deza-ten.

Donostia, 2013ko uztailaren 17a.—Martin Garitano Larrañaga, diputatu nagusia.

(1253)

(7190)

HITZAURREA

Zerga arloko zenbait aldaketa onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2012 Foru Arauak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 2012.12.28) bere hitzaurrean jasotzen du 2013ko lehen seihi-koaren barruan foru arau proiektu bat aurkezteko asmoa, eta zerga iruzurra prebenitu eta borrokatzeko arau arloko neurriak jasoko lirakeke proiektu horretan. Asmo horri jarraituz, hausnarketa prozesu bat egin da Ogasun eta Finantza Departamen-tuan, eta horren emaitza foru arau hauxe dugu.

Zerga iruzurraren aurkako borroka Foru Gobernuaren le-hentasun nagusietako bat da. Ekitatean eta progresibotasunean oinarritutako zerga sistema bat eratuko bada, horren arauak hel-buru horietara egokitzeaz gain, arau horiek benetan betetzearen alde ere lan egin behar da. Horregatik, ezinbestekoa da ikus-puntu global batekin jokatzeko zerga iruzurra prebenitu eta aurkitzeko, bai herritarrak kontzientziatuz zerga obligazioak euren borondatez bete ditzaten, eta bai araugintza arloan lege erreformak eginez zerga elusioa mugatzeko. Era berean, garrantzi handikoa da baliabideak gehitzea eta antolaketa hobet-zea, Administrazioak iruzurra antzemateko egiten duen lana efizienteagoa izan dadin.

Foru arau honen lehen helburua da zerga iruzurraren aur-kako borroka; horretarako, behar diren arau aldaketak bultza-tuko dira, zergen egiaztapen eta bilketa faseetan hari aurre egi-teko. Helburu berari begira, Gipuzkoako Foru Aldundiak giza baliabide gehiagoz hornituko du Ikuskaritzako Zuzendariorde-tza, unitate berri bat sortuta; eta, aldi berean, Zergabilketako unitateak eta Zuzeneko eta Zeharkako Zergen Kudeaketa Zerbi-tzuak sendoagotuko ditu.

Zerga iruzurraren aurkako borrokarekin ere lotuta, foru arau honen barruan sartzen dira Kontseiluaren 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Direktibaren transposizioa Gipuzkoako zerga araudira ekartzeko behar diren aldaketak. Aipatutako direktiba eskubide jakin batzuei eta bestelako neurriei dagozkien kredi-tuak kobratzeko orduan elkarri laguntzeari buruzkoa da.

Bigarrenik, erabakigarria da zerga sistema justua eta ekita-tiboa eratzea, ez bakarrik ikuspuntu formaletik, baizik eta ikus-puntu material edo praktikotik ere. Ez du ezertarako balio arau justuak, orokorrak, berdintzaileak, progresiboak eta ekitatiboak

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

NORMA FORAL 5/2013, de 17 de julio, de medidas de lucha contra el fraude fiscal, de asistencia mutua para el cobro de créditos y de otras modificaciones tributarias.

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han apro-bado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 5/2013, de 17 de julio, de medidas de lucha con-tra el fraude fiscal, de asistencia mutua para el cobro de crédi-tos y de otras modificaciones tributarias», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 17 de julio de 2013.—El diputado general, Martin Garitano Larrañaga.

(1253)

(7190)

PREÁMBULO

El preámbulo de la Norma Foral 13/2012, de 27 de diciem-bre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tribu-tarias (BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa 28/12/2012), incluye el propósito de presentar durante el primer semestre del año 2013 un proyecto de norma foral en el que se recojan medidas nor-mativas encaminadas a la prevención y lucha contra el fraude fiscal. Fruto de esa voluntad se ha desarrollado un proceso de reflexión en el Departamento de Hacienda y Finanzas, cuyo resultado es esta norma foral.

La lucha contra el fraude fiscal es una de las principales prioridades de este Gobierno Foral. La construcción de un sis-tema impositivo basado en la equidad y la progresividad exige no solo adecuar las normas que lo rigen a dichos objetivos, sino también trabajar por que haya un cumplimiento efectivo de las mismas. Es por ello imprescindible una actuación global para prevenir y localizar el fraude fiscal, tanto en lo referente a la concienciación de la ciudadanía para favorecer el cumplimiento voluntario de las obligaciones fiscales, como en los aspectos normativos por medio de las reformas legales necesarias para limitar la elusión fiscal. Asimismo, es de vital importancia incrementar los recursos y mejorar la organización con el obje-tivo de incrementar la eficiencia del trabajo de la Ad-ministración en la detección del fraude.

El primer objetivo de esta Norma Foral es la lucha contra el fraude fiscal, impulsando los cambios normativos necesarios para perseguirlo en las fases de comprobación y de recaudación de los tributos. Con el mismo objetivo, la Diputación Foral de Gipuzkoa dotará de mayores recursos personales a la Subdirección de Inspección, con la creación de una nueva uni-dad, a la vez que reforzará las Unidades de Recaudación y los Servicios de Gestión de Impuestos Directos e Impuestos In-directos.

Relacionado también con la lucha contra el fraude fiscal, se incluyen en la presente Norma Foral las modificaciones neces-arias para incorporar a la normativa tributaria guipuzcoana la transposición de la Directiva 2010/24/UE del Consejo, de 16 de marzo de 2010, sobre asistencia mutua en materia de cobro de créditos correspondientes a determinados impuestos, derechos y otras medidas.

En segundo lugar es determinante configurar un sistema tri-butario justo y equitativo, no sólo desde un punto de vista for-mal sino también material o práctico. De nada sirve establecer normas justas, generales, igualitarias, progresivas y equitativas,

ezartzeak, baldin eta ondoren bitartekorik ez bada jartzen eta ez bada gauzatzen arauen hartzaile guztiei haiek berdin betearazteko behar den jarduketarik.

Horretaz jabetuta, foru arau honetan hainbat arau aldaketa egiten dira, zerga elusioaren mekanismoak zaildu edo eragozte aldera, zeren eta, terminoaren zentzu hertsian iruzurra ez izan arren, zergen ordainketa saihesteko bidea baitziren.

Hirugarrenik, foru arauan sartzan dira beste hainbat aldaketa, zerga iruzurraren edo elusioaren aurkako neurriak ez izan arren, errenten tributazioan ekitate eta proportzionaltasun printzipioak berreskuratzeko lagungarriak direnak.

Hori horrela, foru araua hiru tituluz osatuta dago: Lehena, zerga iruzurraren eta elusioaren aurkako neurriei buruzkoa; bigarrena, kredituen kobrantzarako elkarren laguntzako arauen transposizioari buruzkoa; eta, hirugarrena, zergen arloko beste-laketa aldaketa batzuei buruzkoa.

I. titulua 4. artikuluz osatuta dago, eta horien bidez beste hainbeste foru arau aldatzen dira, ordena honetan:

1. Zergen Foru Arau Orokorra.
2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua.
3. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Araua.
4. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Foru Araua.

II. tituluan, aldatu egiten da berrito Zergen Foru Arau Orokorra, 2010/24/EB Direktibaren transposizioa egiteko eta direktiba horretatik zerga prozeduran eratortzen diren berezitasun guztiak berariaz jasotzeko asmoz.

Azkenik, III. tituluan jasota daude Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko aldaketak.

Foru arau honetan, Zergen Foru Arau Orokorren hainbat aldaketa sartzan dira, zerga iruzurraren aurkako borrokaren eraginkortasuna areagotu ahal izateko.

Horiek horrela, Foru Ogasunaren aurkako iruzurra egitean, behin zerga zorra sortuta, dagoen ondarea bazkideei banatzen zaienean aurrelikidazioko eragiketen bidez, kuota hutsal bat —edo batere ez— duen likidazio formal bat lortze aldera, kome-nigarria da horretarako zerga zorraren oinordea den bazkidearen likidazio kuotaren balioa handitzea haren erantzukizunaren muga den zerga zorrean. Horretarako, erregulatu egiten da, berariaz, bazkideak noraino duen erantzukizuna desegin edo likidatu diren pertsona juridikoen edo entitateen zerga zorrari dagokionez, zerga zorraren eta, hala badagokio, zehapenen oinordetzan.

Aldatu egiten da nortasun juridikoa duten entitateen oinordetza sistema, entitate juridiko-publikoen oinordetzari babes juridikoa emateko, horietan ere merkataritza arloko ohiko subrogazioa gertatzen baita. Asmo horrekin, sartu egiten dira, esplizituki, zerga arloko oinordetza izan dezaketenez, oinorde eta onuradun izaera duten mota guztietako nortasun juridikodun sozietate eta entitateak.

Argitu egiten dira zerga erantzulearen izaera juridikoak dakartzan ondorioak. Izan ere, erantzule hori ez da parekatu behar subjektu arau-hausle batekin, baizik eta zergapeko batekin, zentzu hertsian hartuta, nahiz eta kasu batzuetan arau-hausleari jarritako zerga zehapenez ere erantzun.

si después no se ponen los medios y se ejercitan las debidas actuaciones para hacerlas cumplir a todos sus destinatarios por igual.

Conscientes de ello, la presente Norma Foral adopta una serie de modificaciones normativas encaminadas a dificultar o impedir los mecanismos de elusión fiscal que, sin ser fraude en el sentido estricto del término, conducían a evitar el pago de los impuestos correspondientes.

En tercer lugar se incluyen en la Norma Foral determinadas modificaciones que sin ser medidas de lucha contra el fraude o la elusión fiscal, inciden en recuperar los principios de equidad y proporcionalidad en la tributación de las rentas obtenidas.

De esta manera, la Norma Foral esta conformada por tres títulos, uno incluyendo las medidas de lucha contra el fraude y la elusión fiscal, el segundo transponiendo las normas de asistencia mutua en materia de cobro de créditos, y el tercero integrado por otras modificaciones tributarias.

En lo que al título I se refiere, comenzar señalando que incluye 4 artículos a través de los cuales se modifican otras tantas normas forales, por este orden:

- 1.º La Norma Foral General Tributaria.
- 2.º La Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
- 3.º La Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.
- 4.º La Norma Foral del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

En el título II se modifica nuevamente la Norma Foral General Tributaria para transponer la Directiva 2010/24/UE y recoger expresamente todas las particularidades que en el procedimiento tributario se derivan de la misma.

Por último, en el título III se incluyen modificaciones que afectan al Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y al Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Son diversas las modificaciones de la Norma Foral General Tributaria que se incorporan en esta Norma Foral para poder aumentar la efectividad de la lucha contra el fraude fiscal.

Así, la actuación en fraude de la Hacienda Foral consistente en repartir el patrimonio existente, una vez nacida la deuda, a los socios a través de operaciones de preliquidación, para dejar paso a una liquidación formal con una cuota insignificante, cuando no inexistente, hace aconsejable incrementar a estos efectos el valor de la cuota de liquidación del socio sucesor en la deuda tributaria que opera como límite de su responsabilidad. A tal fin se regula expresamente el alcance del límite de la responsabilidad de dicho socio en la deuda tributaria de las personas jurídicas o entidades disueltas o liquidadas que limitan la responsabilidad patrimonial de los socios, tanto en la sucesión de la deuda tributaria como de las sanciones, en su caso.

Se modifica el sistema de sucesión de las entidades con personalidad jurídica, para dar cobertura a la sucesión de entidades jurídico-públicas, en las que también se produce la subrogación mercantil tradicional. Con ese propósito, se incluyen de forma explícita como susceptibles de sucesión tributaria toda clase de sociedades y entidades con personalidad jurídica que tuvieran la condición de sucesoras y beneficiarias.

Se aclaran las implicaciones derivadas de la naturaleza jurídica del responsable tributario, que no debe ser identificado con un sujeto infractor, sino como obligado tributario en sentido estricto, aun cuando en determinados casos responda también de las sanciones tributarias impuestas a quien ha cometido la infracción.

Berriro formulatzen dira erantzukizun kasu batzuk. Berezi aipatzekoa da, gauza berria baita, pertsona juridiko baten bazkideei edo administratzaileei eragiten dien erantzukizun solidario berri bat sartzea, beren zerga pertsonalean haren ordainsarien atxikipenen kenkaria aplikatzen badute, pertsona juridikoak atxikipenak Herri Ogasunean sartu ez dituenean.

Erantzukizun subsidiarioko kasu berri bat sartzen da, kobrantza erraztu nahi baita, ondarrerik gabe jarduera ekonomiko erregular batean aritu arren, jasanarazi beharreko zergengatik edo langileei, profesionaleri edo beste enpresari batzuei atxiki beharreko diru kopuruengatik, eta iruzurra egiteko asmoz, behin eta berriz eta sistematikoki diru sarrerarik gabeko autoliquidazioen aurkezpen formala egiten duten enpresetako administratzaileen aurka.

Zergapekoak aitorpenik aurkezten ez duenean, bere zerga helbidea zehazteko, halakotzat hartuko da errolda-oinarrian jasotako helbidea edo bera titular moduan agertzen den edozein ondasun higiezinaren edo ustiapen ekonomikoren kokalekuaren helbidea.

Hobetu egiten da arauaren idazkera, preskripzio epearen konputuaren hasieraren dies a quo-ren zehaztapenean, erantzukizun solidarioa antzematea gaitzen duen egitatea zordun nagusiaren borondatezko epea amaitu eta biharamunaren ondoren gertatzen denean.

Gainera, argitu egiten da, zerga obligazio jakin batzuei dagokienez, Administrazioak zerga zorra likidazioaren bidez zehazteko duen eskubidearen preskripzio epearen konputuaren etenari buruzko araubide juridikoa, Administrazioaren ekintza jatorriz beste zerga obligazio desberdin bati zuzendu zaionean, zergapekoak okerreko aitorpen bat aurkeztearen ondorioz.

Bestetik, aldatu egiten da konkurtso deklarazioak etendako preskripzio epea berriro hasten den momentua, bat etorri dadin Administrazioak bere autotutoretza exekutiboaren ahalmenak berreskuratzen dituen momentuarekin; horretarako, guztiz teknikoa den hobekuntza bat sartzen da, Foru Ogasunak zordun konkurtsatuekin dituen harremanei segurtasun juridikoa emate aldera.

Era berean, argitu egiten dira auzi, konkurtso, gatazka eta legezko beste arrazoi batzuk direla-eta preskripzio epea etetearen ondorioak; horretarako, etendura horren ondorioak zergapeko guztiei zabaltzen zaizkiela azaltzen da.

Preskripzioaren hedadurari eta ondorioei dagokienez, argitu egiten da, espresuki, egiaztapen eta ikerketa jarduketak egin ahal izango direla jarraian azalduko diren alderdien egoera, nondik norakoa eta zenbatekoak zeintzuk diren zehazteko: Oinarri ezargarri negatiboak, kuotako kenkariak, zergak jasana-razteko mekanismoa ezarrita duten zergetan konpentsatzeko diren kuotak eta, azkenik, zergapekoek konpentsatu, kenkaria egin, itzuli edo gozatu nahi duten beste edozein kreditu fiskal, nahiz eta ekitaldi preskribatu batetik eratorriak izan, ahaztu gabe jatorria diren zergaldi preskribatuei dagokienez zerga likidazio bat egitea ezinezkoa dela.

Sartu egiten da epailari bere funtzio jurisdikzionalaren ariketa ahalbideratzen dioten neurriak hartzeko aukera, hark erabakiak hartu ahal izan ditzan kautelazko neurrien eremuan, ikerketa lan batean oinarrituta eta Zerga Administrazioak baloratuta zergatik gertatzen diren, bere iritziz, kautelazko neurri bat hartzea komenigarri egiten duten zirkunstantziak. Iruzur larriagoaren aurkako borrokari aurrera egite aldera, aldatu egiten dira delitu fiskaleko espedienteetan kautelazko neurriak, eta, horrela, neurri horiek salbuespenezko eta behin-behineko

Se reformulan algunos supuestos de responsabilidad, destacando por novedosa la incorporación de una nueva responsabilidad solidaria que afecta a los socios o administradores de una persona jurídica que se deduzcan en su impuesto personal las retenciones correspondientes a sus retribuciones cuando la persona jurídica no las haya ingresado en la Hacienda pública.

Se introduce un nuevo supuesto de responsabilidad subsidiaria, destinado a facilitar la acción de cobro contra los administradores de aquellas empresas que carentes de patrimonio, pero con actividad económica regular, realizan una actividad recurrente y sistemática de presentación de autoliquidaciones formalmente pero sin ingreso por tributos que deban repercutirse o de cantidades que deban retenerse a trabajadores, profesionales u otros empresarios, con ánimo defraudatorio.

En ausencia de declaración por parte del obligado tributario, se determina el domicilio fiscal del mismo, entendiéndose como tal el que conste en la base padronal o el de situación de cualquier inmueble o explotación económica del que figure como titular.

Se mejora la redacción de la norma en la determinación del dies a quo del inicio del cómputo de los plazos de prescripción en aquellos supuestos de responsabilidad solidaria en que el hecho habilitante para apreciar la misma concurre con posterioridad al día siguiente a la finalización del periodo voluntario del deudor principal.

Además, se clarifica el régimen jurídico que regula la interrupción del cómputo del plazo de prescripción del derecho de la Administración a determinar la deuda tributaria mediante la oportuna liquidación respecto de determinadas obligaciones tributarias, cuando la acción de la Administración se haya dirigido originariamente respecto de otra obligación tributaria distinta como consecuencia de la presentación de una declaración incorrecta por parte del obligado tributario.

Por otro lado, se modifica el momento en el que se reinicia el plazo de prescripción interrumpido por la declaración de concurso para que coincida con el momento en que la Administración recupera sus facultades de autotutela ejecutiva, introduciendo una mejora estrictamente técnica para dotar de seguridad jurídica a las relaciones de la Hacienda Foral con los deudores concursados.

Asimismo, se aclaran los efectos de la suspensión del cómputo del plazo de prescripción por litigio, concurso, conflicto y otras causas legales, explicitando que los efectos de dicha suspensión se extienden a todos los obligados tributarios.

Relacionado con la extensión y efectos de la prescripción se aclara expresamente que se podrán realizar actuaciones de comprobación e investigación para determinar la realidad, procedencia y cuantía de las bases imponibles negativas, de las deducciones de la cuota, de las cuotas objeto de compensación correspondientes a impuestos en los que esté establecido el mecanismo de repercusión de los mismos, así como de cualquier otro crédito fiscal, cuya compensación, deducción o disfrute pretendieran los obligados tributarios, aun cuando procedan de un período prescrito, sin perjuicio, claro está, de la imposibilidad de dictar liquidación tributaria alguna respecto de los períodos prescritos de que procedan.

Se incluye la posibilidad de adoptar medidas que permitan facilitar al Juez el ejercicio de su función jurisdiccional, permitiéndole tomar decisiones en el ámbito de las medidas cautelares sobre la base de un trabajo previo de investigación acompañado de una valoración de la Administración tributaria de por qué se dan las circunstancias que, a su juicio, determinan la conveniencia de adoptar una medida cautelar. Para avanzar en la lucha contra el fraude más agravado, se plantea la modificación de las medidas cautelares en expedientes por delito fiscal,

neurritzat hartzen dira, eta haien asmo bakarra da ahalik eta azkarren erabaki jurisdikzionalaren menpe jartzea ondare baten blokeoa, zeren eta haren erabilgarritasuna, prozesu penalaren ondorioz, auzitan jartzen baita kautelazko neurri administrati-boa hartzea ahalbideratzen duten gertaera frogatuen bidez. Nabarmentzeko da kautelazko neurriak hartzeko aukera zabal-tzen dela ikerketa judizialaren jatorria Zerga Administrazioak egindako egiaztapen eta ikerketa jarduketak ez dituzten beste kasu batzuetara. Aldaketa hori osatzen da, Foru Ogasunaren jar-duketari segurtasun juridiko handiagoa emateko asmoz, Zerga Administrazioari ematen zaion legezko mandatu batekin, horrek ikertu dezan Herri Ogasunaren aurkako delituagatik ire-kitako prozesu batek eraginda edo horrekin lotuta dauden sub-jektuen ondarea.

Gainera, zerga bilketaren arloko iruzurrezko portaera jakin batzuei aurre egiteko —hala nola sozietate baten ondarea hus-tea—, debekatu egiten da erabiltzea akzioak edo partaidetzak enbargatu zaizkien eta, Foru Ogasunaren zordun izanik, horien titularrak enpresaren kontrol efektiboa daramaten sozietateen ondasunak eta horien gaineko eskubideak.

Diruzkoak ez diren zehapenen operatibotasuna hobetzeko, aldatu egiten da zehapen horiek jartzeko zehapen prozeduren hasiera epea. Hori horrela, sei hilabeteko epea hasiko da konta-tzen diruzkoa ez den zehapenaren balizko ezarpenari lotuta dagoen diruzko zehapen bat ezartzeko egintza jakinarazten denetik edo jakinarazitzat ematen denetik aurrera.

Argitu egiten da berandutza interesak eten eta sortzeko sis-tema, erantzukizuna erartortzeko erabakien aurkako errekurtsioa edo erreklamazioa aurkeztuz gero. Horrela, izaera orokorre-z, baldin eta zehapena errekurritzen badu bai zordun nagusiak bai erantzuleak, eten egingo da zehapenaren exekuzioa, eta berandutza interesak sortzeari utziko zaio administrazio bidea amaitzen duen ebazpena jakinaraztean irekitako borondatezko epea bukatu arte doan denbora tartean. Halere, Zergen Foru Arau Orokorrak 42. artikularen 4. apartatuan jasotako erantzukizun solidarioko kasuetan, ez dira aplikatuko exekuzioa eten eta interesak ez sortzeko neurri horiek, kontuan hartuta zuzen-bidezko zer kasutan gertatu daitekeen erantzukizun hori.

Era berean, sartu egiten da Zerga Administrazioak kaute-lazko neurriak hartzeko aukera, identifikazio fiskaleko zenba-kia balio gabetzeko prozeduraren ondorioz ziurtatze aldera.

Europar Batasunean kapitalek eta merkantziek zirkulazio askatasuna izatearekin eta diru masa eskergen jatorri eta hel-mugaren gaineko kontrolak lasaitu edo deuseztatzearekin batera —paradisu fiskaletan ez ezik, herrialde askotako eremu ilunetan ere—, erabateko hutsunea izan du harmonizazio fiska-lak, bai eta eremu ekonomiko erkideetan ere, eta egitatez edo zuzenbidez uko egin zaio zerga administrazioen artean datu fis-kalak modu orokortu batean eta berehala trukatzeko mekanis-moak ezartzeari.

Horregatik, inoiz baino beharrezkoagoa da informazioko berriazko obligazio bat ezartzea, atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideen arloan, ondasun edo eskubide horien jabeek dagokienez. Hori dela eta, ezarri egiten dira aipatutako infor-mazio obligazioa eta hori garatzeko erregelamenduzko gaikun-tza, Zergen Foru Arau Orokorrari eransten zaion xedapen gehi-garri baten bidez. Obligazio hori osatzeko, xedapen horretan zehapen araubide bat ezartzen da, obligazioa betetzen ez dene-rako eta ez-betetze horrek preskripzioari dakartzkion ondorioei buruz.

considerando su carácter de medidas excepcionales y provisio-nales que solo pretenden someter de forma lo más inmediata posible a la decisión jurisdiccional el bloqueo de un patrimonio cuya disponibilidad, a resultas del proceso penal, resulta cues-tionada en virtud de los hechos acreditados que permiten la adopción de la medida cautelar administrativa, debiendo resal-tarse que la posibilidad de adoptar medidas cautelares también se extiende a otros supuestos en los que la investigación judi-cial no tenga su origen en actuaciones de comprobación e investigación desarrollados por la Administración tributaria. La modificación se complementa, para dotar de mayor seguridad jurídica a la actuación de la Hacienda Foral, con un mandato legal a la Administración tributaria para la investigación patri-monial de los sujetos afectados o relacionados con un proceso por delito contra la Hacienda Pública.

Además, para combatir determinadas conductas fraudulen-tas en sede recaudatoria consistentes en la despatrimonializa-ción de una sociedad, se establece la prohibición de disposición de los bienes y derechos sobre los mismos de sociedades cuyas acciones o participaciones hubiesen sido objeto de embargo y se ejerciese por el titular de las mismas, deudor de la Hacienda Foral, el control efectivo de la mercantil en cuestión.

Para favorecer la operatividad de las sanciones no pecunia-rias, se modifica el plazo para iniciar los procedimientos sanc-ionadores para la imposición de estas sanciones. Así, se pasan a contar los seis meses desde que se hubiese notificado o se entendiese notificado el acto de imposición de sanción pecu-niaria con la que está ligada la eventual imposición de la san-ción no pecuniaria.

Se clarifica el sistema de suspensión y devengo de intereses de demora en el caso de recurso o reclamación contra los acuer-dos de derivación de responsabilidad. Así, con carácter general, si la sanción es recurrida tanto por el deudor principal como por el responsable, la ejecución de la sanción será suspendida y dejarán de devengarse intereses de demora por el periodo de tiempo transcurrido hasta la finalización del periodo voluntario abierto por la notificación de la resolución que ponga fin a la vía administrativa. Sin embargo, en los supuestos de responsa-bilidad solidaria del artículo 42.4 de la Norma Foral General Tributaria, no se aplicarán las citadas medidas de suspensión de ejecución y no devengo de intereses, habida cuenta del presu-puesto de derecho de dicha responsabilidad.

Se incluye también la posibilidad de adoptar medidas cau-telares por parte de la Administración tributaria para asegurar los efectos derivados del procedimiento de revocación del número de identificación fiscal.

La libertad de circulación de capitales y mercancías en la Unión Europea, así como la relajación o eliminación de los con-troles sobre el origen y destino de ingentes masas de dinero, no solo en los denominados paraísos fiscales sino en auténticas zonas oscuras de muchos países, ha discurrido pareja con una falta total de armonización fiscal incluso en zonas económicas comunes y con la negativa de hecho o de derecho a implantar mecanismos de transmisión generalizada e inmediata de datos fiscales entre las distintas administraciones tributarias.

Esto hace más necesario que nunca la implantación de una obligación específica de información en materia de bienes y derechos situados en el extranjero por parte de los propietarios de dichos bienes o derechos. Por ello, a través de una disposi-ción adicional que se incorpora a la Norma Foral General Tributaria, se establece dicha obligación de información, así como la habilitación reglamentaria para su desarrollo. La obli-gación se completa con el establecimiento en dicha disposición de un régimen sancionador en caso de incumplimiento de la obligación, así como con las consecuencias que dicho incum-plimiento provocan en la prescripción.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotako aldaketei dagokienez, jarraian aldaketa nagusiak aipatuko dira.

Zuzeneko zenbatespeneko jarduera ekonomikoen etekina zehaztean, mugak jartzen zaizkio gastu jakin batzuk kengarriak izateari, hala nola jatetxe, ostatu, bidai eta oparietan eta turismo ibilgailuetan, motozikletetan eta antzekoetan.

Azken horiei dagokienez, zerga ondorioetarako mugatutako erosketa prezio bat ezartzen da –25.000 euro–, eta prezio horren erreferentzia izango dute depreziatio, errentamendu eta lagapen gastuek; hori horrela, bakarrik izango dira kengarriak erosketa prezio horretatik beherako ibilgailuen gastuek edo, prezioa gaintuz gero, zenbateko horretaraino zati proportzionalean izango dira kengarriak. Beraz, prezio handiagoko ibilgailuak erosten dituzten zergadunek ezingo dute kontzeptu horiei lotutako kenkari fiskala aplikatu diferentziari dagokionez, kasu horietan zerga araudiak sustatu behar ez dituen gozamen pertsonaleko elementuak sartzen diren neurrian, aurreko paragrafoan aipatutako gastuetan bezala. Gainera, muga bat ezartzen da ibilgailuaren erabilpenarekin lotutako gastuetan kenkaria egiteko.

Aldi berean, ezartzen da urriaren 29ko 7/2012 Legeak 7. artikuluan ezarri duen debekua, ordainketak esku-dirtutan ezin egitekoa, betetzen ez duten eragiketen gastuak ez direla kengarriak izango. Gainera, eta aurretiazko egoerari aldaketarik ekarri gabe, aldarrikatu egiten da eroskeria kengarria izateko aukera baztertuta dagoela. Horrela, berariaz jasota gelditzen da gure araudian zehaztapen hori, Kontseiluak 2009ko maiatzaren 25ean merkataritzako transakzioetan atzerriko funtzionarioen ustelkeriaren aurkako borroka indartzeko neurri fiskalei buruz emandako C (2009) 64 Gomendioari jarraituz - eta bai Lan-kidetzarako eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak bai Europar Batasunak esparru horretan iradokitzen dituzten ohar-penei erreparaturik. Era berean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jarritakoen antzeko mugak ezartzen dira Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarria zehazteko fiskalki kengarriak diren gastuetan.

Beste aldaketa bat egiten da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauan, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren aldaketen artean ere sartuta dagoena, eta justifikatu gabeko ondare irabaziei eragiten die. Horri begira, ezarri egiten da atzerriko ondasun eta eskubideei buruzko informazio betebeharra epe barruan ez aurkezteak zer eragin izan dezakeen irabazi horiei eta errenten ustezko lorpenari dagokienez. Aldi berean, Zergen Foru Arau Orokorrean sartu egiten da, gainera, berariazko arau-hauste bat. Horrela, handitu egiten dira zehapenak, zergapekoek beren autolikidazioetan frogatu gabeko edo ustez lortutako ondare irabazi moduan erregularizatzen diren errentak jaso gabe utzi zituzten kasuetarako.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan jasotako aldaketen artean, aipatzekoa da barruan sartzen direla pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan fiskalki kengarriak diren zenbait gasturi dagokionez jada aipatutakoak. Gastu horiek dira, esate baterako, jatetxe eta ostatu gastuak, bidaiak eta opariak, eta turismo ibilgailuei, motozikletei eta antzekoei dagozkienak.

Bestalde, erregelak ezartzen dira urontzi eta aireontzietatik datozen gastuak kendu ahal izateko. Horrela, argitzen da gastu horiek kengarriak izango direla baldin eta garraio elementu horien ustiapena jardueraren xedea bada eta jarduerak horretarako bitarteko material eta pertsonal nahikoak baditu. Zerga

De las modificaciones incluidas en la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, deben destacarse las que se mencionan a continuación.

En la determinación del rendimiento de actividades económicas en estimación directa se establecen límites a la deducibilidad de determinados gastos, tales como servicios de restauración, alojamiento, viajes y regalos, así como los relativos a automóviles de turismo, motocicletas y similares.

Por lo que a estos últimos se refiere, se establece un precio de adquisición limitado a efectos fiscales, fijado en 25.000 euros, al cual se referencian los gastos de depreciación, arrendamiento y cesión, de forma que solamente van a ser deducibles los gastos relativos a vehículos que no superen ese precio de adquisición, o si lo superan, lo serán en la parte proporcional hasta ese importe. Por tanto, los contribuyentes que adquieran vehículos de superior precio, en la medida en que esto, al igual que los gastos citados en el párrafo anterior, incluye elementos de disfrute personal que no deben ser estimulados por la normativa tributaria, no podrán aplicar la deducción fiscal por los citados conceptos en lo que se refiere a la diferencia. Además, se establece un límite de deducción de los gastos relacionados con la utilización del vehículo.

Al mismo tiempo se establece la no deducibilidad de los gastos derivados de las operaciones en las que se incumpla la prohibición de pagos en efectivo establecida en el artículo 7 de la Ley 7/2012, de 29 de octubre. Además, y sin que signifique modificación alguna respecto a la situación preexistente, se proclama la no deducibilidad de los sobornos, recogiendo de esta manera expresamente en nuestra normativa esta precisión, de conformidad con la Recomendación C (2009) 64 del Consejo, de 25 de mayo de 2009, sobre medidas fiscales para reforzar la lucha contra la corrupción de funcionarios públicos extranjeros en las transacciones comerciales, y atendiendo a las indicaciones que tanto la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico como la Unión Europea sugieren en este ámbito. Límites similares a los previstos en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se establecen también en los gastos fiscalmente deducibles para la determinación de la base imponible del Impuesto sobre Sociedades.

Otra modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que también se incluye entre las modificaciones introducidas en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, afecta a las ganancias patrimoniales no justificadas, estableciendo la incidencia que en el ámbito de dichas ganancias y de la presunción de obtención de rentas, respectivamente, pueda tener la no presentación en plazo de la obligación de información sobre los bienes y derechos situados en el extranjero. Simultáneamente, en la Norma Foral General Tributaria se introduce, además, una infracción específica, con un agravamiento de las sanciones, para estos casos en los que los obligados tributarios no consignaron en sus autoliquidaciones las rentas que son objeto de regularización como ganancias patrimoniales no justificadas o presuntamente obtenidas.

Entre las modificaciones incluidas en la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades señalar que se incluyen las ya indicadas respecto a determinados gastos fiscalmente deducibles en las modificaciones del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, tales como servicios de restauración, alojamiento, viajes y regalos, así como los relativos a automóviles de turismo, motocicletas y similares.

Además, se introducen reglas para la deducibilidad de los gastos derivados de embarcaciones y aeronaves, aclarando que estos gastos solo resultarán deducibles cuando la explotación de dichos elementos de transporte constituya el objeto de la actividad, contando con medios materiales y personales suficientes

honetara igortzeagatik, erregela horiek ere aplikagarriak izango dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergadunentzat, jarduera ekonomikoaren etekina zuzeneko zenbatespenaren meto- doan kalkulatzeko dutenean.

Horrez gain, foru arau honetan jasotzen da garraio bide jakin batzuen kenkariak, amortizazio askatasuna, amortizazio azkartua, eta aparteko mozkinen berrinbertsioagatik aplikatzen den salbuespena baztertua edo mugatuta gera daitezkeela. Era berean, aldatu egiten da finantza errentamenduko kontratu- etarako jasotako araubide fiskala; horrela, alde batetik, mugatu edo baztertzen da garraio bide jakin batzuen kostuaren berreskurapena kengarria izatea eta, bestetik, ahalbidetu egiten da aktibo jakin batzuk aurrerapenez amortizatzea, horien izaera bereziaren arabera.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren aldaketei dagokienez, aldatu egiten da balore eskualdaketa-ri aplikagarri zaion salbuespena, hasieran ezarritako-koari jarraituz elusio fiskalaren aurkako neurritzat hartzeko, ondasun higiezinaren eskualdaketa baten estaldura batean hala-koak diren balizko balore eskualdaketa egiten direnean soziate figurak tartekatuz. Horretarako, sinplifikatu egiten da haren erregulazioa, eta aldatu egiten da xedapena Ondare Eskualda- keten eta Egintza Juridikoen gaineko Zergaren kargaren salbuespen orokorra argitzeko; horrela, salbuetsi egiten dira horre- lako exentzioak, baldin eta zergaren ordainketa saihesteko ahalegina egiten bada eskualdatutako baloreak ordezkatzeko dituzten entitateen ondasun higiezinaren eskualdaketa- ren bidez, kasu horretan eragiketa berriro zergapetuko baita.

III. tituluaren, lehenengo adierazitakoaren arabera, sartu egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauei eragiten dieten zerga aldaketak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Arau- en aldaketei dagokienez, zerga ahalmenari eta ekitateari lotu- tako arrazoiengatik, gehienez 180.000 eurora mugatzen da foru arauan langilearen kaleratze edo kargugabetzeagatik jasotako kalte-ordain zenbatekoa, gainerako zatia errenta irregular moduan zergapetzea eragotzi gabe. Bestetik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren oharpenari erreparatuta, salbuespen horre- tatik kanpo uzten da herri administrazioetako giza baliabideen plan estrategikoak eta kaleratze kolektiboak eta Langileen Estatutu- etako 51. artikuluan jasotako arrazoi objektiboek era- gindako kaleratzeak edo kargugabetzeak parekatzea.

5/2011 Foru Arauak lan etekin irregularrei buruz ezarritako irizpidearen arabera, urteko 300.000 euroko muga bat jartzen zaio kapital higiezinaren eta jarduera ekonomikoaren etekin ir- regularrak eta kapital higigarriaren etekin jakin batzuk integratze- ari, baldin eta etekin horiei ekitaldi bakoitzean 100eko 100etik beherako integrazio portzentaje bat aplikatzen bazaie. Zen- bateko horren gaineko soberakina 100eko 100ean integratuko da.

Higiezinaren errentamenduko edo salerosketako jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehaztean, mugatu egiten da jar- dueraren xede diren ondasunak, eskubideak edo ondasun higie- zinen erabilera edo gozamen ahalmenak erosi, birgaitu edo hobetzean inbertitutako besteren kapitalengatik izandako inte- resak kengarriak izatea; muga hori ezingo da handiagoa izan aipatutako ondasun, eskubide edo erabilera edo gozamen ahal- menetatik datozen etekin osoen 100eko 50 baino.

Era berean, gehieneko muga bat ezartzen da kapital higiezi- naren etekin garbia zehaztean, eta etekinen sorburu diren onda- sunak, eskubideak nahiz erabilera edo gozamen ahalmenak

para ello. Estas mismas reglas serán de aplicación, por remisión a este Impuesto, para contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que determinen el rendimiento de su actividad económica mediante el método de estimación directa.

Además, se incluye la exclusión o, en su caso, limitación de la libertad de amortización, de la amortización acelerada, de la exención por reinversión de beneficios extraordinarios y de las deducciones por determinados medios de transporte, a la vez que se modifica el régimen fiscal previsto para contratos de arrendamiento financiero, limitando o excluyendo, por una parte, la deducibilidad de la recuperación del coste de determi- nados medios de transporte, y por otra, posibilitando la amorti- zación anticipada de determinados activos, de acuerdo con su particular naturaleza.

En cuanto a las modificaciones del Impuesto del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Docu- mentados, se modifica la exención aplicable a la transmisión de valores, con el fin de conformarla, tal como se estableció origi- nariamente, como una medida anti-elusión fiscal de las posibles transmisiones de valores que lo sean en una cobertura de una transmisión de inmuebles, mediante la interposición de figuras societarias. Para ello se simplifica su regulación y se modifica el precepto para aclarar la exención general del gravamen por el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, excepcionando tales exenciones si se trata de eludir su pago por la transmisión de los inmuebles de las enti- dades a los que representan los valores transmitidos, en cuyo caso, la operación volverá a ser gravada por el impuesto.

En el título III, como se ha anticipado anteriormente, se incluyen modificaciones tributarias que afectan a las Normas Forales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados.

Con respecto a las modificaciones de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, por razones de capacidad tributaria y de equidad se limita a un importe máximo de 180.000 euros la cuantía exenta procedente de las indemniza- ciones percibidas por despido o cese del trabajador incluidas en la Norma Foral, sin perjuicio de que el resto tribute como renta ir- regular. Por otra parte, recogiendo la advertencia del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, se elimina de dicha exención la asimilación a los despidos colectivos y despidos o ceses por causas objetivas de los planes estratégicos de recursos humanos de las Administraciones públicas basados en alguna de las causas pre- vistas en el artículo 51 del Estatuto de los Trabajadores.

Siguiendo con el criterio establecido en la Norma Foral 5/2011 para los rendimientos del trabajo irregulares, se esta- blece un límite de 300.000 euros anuales con respecto a la inte- gración de los rendimientos irregulares de capital inmobiliario, de actividades económicas y de determinados rendimientos de capital mobiliario, a los que en cada ejercicio se les aplique un porcentaje de integración inferior al 100 por 100. El exceso sobre el citado importe se integrará al 100 por 100.

En la determinación del rendimiento neto de actividades económicas consistentes en el arrendamiento o compraventa de inmuebles, se establece un límite a la deducibilidad de los inte- reses por los capitales ajenos invertidos en la adquisición, reha- bilitación o mejora de los bienes, derechos o facultades de uso o disfrute de los inmuebles objeto de la actividad, que no podrá ser superior al 50 por 100 de los rendimientos íntegros procedentes de dichos bienes, derechos o facultades de uso o disfrute.

Así mismo, en la determinación del rendimiento neto del capital inmobiliario, y con respecto a la deducibilidad del importe de los intereses de los capitales ajenos invertidos en la

eskuratu, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen interesen zenbatekoa eta gainerako finantzaketa gastuak kengarriak izateari dagokionez; muga hori izango da aipatutako ondasun, eskubide nahiz erabilera edo gozamen ahalmenetatik datozen etekin osoen 100eko 50a.

Aldatu egiten dira oinarri ezargarri orokorraren errentak integratu eta konpentsatzeko erregelak, eta ezartzen da zergadun baten jardura ekonomikoen etekinak negatiboak izanez gero bakarrik konpentsatuko direla zergadun berak ondorengo 4 ekitaldietan jardura ekonomikoan lortutako etekin positiboekin.

Azkenik, ohiko etxebizitzaren alokairuko kenkarirako nahiz ohiko etxebizitzaren erosketako kenkarirako, erregela hau ezartzen da: Kenkari portzentajea aplikatzen zaion oinarritik kenduko dira zergadunak alokatzeko edo birgaitu edo erosteko jasotako diru laguntzak, halakorik badago.

Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren aldatzeko dagokienez, foru arau honetan ezartzen da enbargatzeko eskumena duen administrazioak ofizioz agindutako enbargoko prebentziozko oharrak ez direla lotuta egongo egintza juridiko dokumentatuen modalitatera.

I. TITULUA

ZERGA IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO NEURRIAK

1. artikulua. Zergen Foru Arau Orokorra aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean:

Bat. Paragrafo bat gehitzen zaio 39. artikulua 3. apartatuari. Hona hemen haren edukia:

«Aurreko paragrafoan aipatutako zerga obligazioak eta heriotza dela-eta eskualdatu daitezkeen obligazioak herentzia onartugabeko ondasunen kargura bete ahal izango dira».

Bi. Honela idatzita geratzen dira 40. artikulua 1., 2. eta 6. apartatuak:

«1. Zerga obligazioak nortasun juridikoa duten sozietate eta entitate desegin eta likidatuetatik datozenean eta sozietate eta entitate horietan bazkide, partaide edo titularkideen ondare erantzukizuna legez mugatua badago, zerga obligazioak haiei eskualdatuko zaizkie, eta solidarioki bete beharko dituzte. Obligazio horiek badute, ordea, muga bat: Bazkide, partaide edo titularkideen likidazio kuotaren balioa, eta sozietatea desegin aurreko lau urteetan jasotzen dituzten ondare prestazioak, baldin eta obligazio horietan erantzun beharko lukeen sozietate ondarea gutxitzen badute, betiere foru arau honetan bazkide, partaide edo titularkide horien erantzukizun kasuetarako finkatutakoa eragotzi gabe.

Nortasun juridikodun sozietate edo entitate bat desegiten eta likidatzen bada eta legeriak bazkideen, partaideen edo titularkideen ondasun erantzukizuna mugatzen ez badu, bete gabeko zerga obligazio guztiak haiei eskualdatuko zaizkie, eta solidarioki bete beharko dituzte».

«2. Nortasun juridikoa duen sozietate eta entitateak likidaziorik gabe iraungi edo desegiten direnean, betetzeko gelditzen diren zerga obligazioak eragiketaren ondorengoak edo

adquisición, rehabilitación o mejora de los bienes, derechos o facultades de uso o disfrute de los que procedan los rendimientos, y demás gastos de financiación, se establece el límite del 50 por 100 de los rendimientos íntegros procedentes de dichos bienes, derechos o facultades de uso o disfrute.

Se modifican las reglas de integración y compensación de rentas de la base imponible general, y se establece que de resultar negativos los rendimientos de actividades económicas de un contribuyente, sólo se compensaran con rendimientos de actividades económicas positivos del mismo contribuyente obtenidos en los 4 ejercicios posteriores.

Por último, apuntar que, tanto para la deducción por alquiler de vivienda habitual como para la deducción por adquisición de vivienda habitual, se establece la regla de que de la base sobre la que se aplica el porcentaje de deducción, se restarán las subvenciones percibidas por el contribuyente para el alquiler o para la rehabilitación o adquisición, en su caso.

Con respecto a las modificaciones del Norma Foral del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, se establece la no sujeción a la modalidad de actos jurídicos documentados de las anotaciones preventivas de embargo ordenadas de oficio por la administración competente para ello.

TÍTULO I

MEDIDAS DE LUCHA CONTRA EL FRAUDE FISCAL

Artículo 1. Modificación de la Norma Foral General Tributaria.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

Uno. Se adiciona un párrafo al apartado 3 del artículo 39 con el siguiente contenido:

«Las obligaciones tributarias a que se refiere el párrafo anterior y las que fueran transmisibles por causa de muerte podrán satisfacerse con cargo a los bienes de la herencia ya-cente».

Dos. Los apartados 1, 2 y 6 del artículo 40 quedan redactados en los siguientes términos:

«1. Las obligaciones tributarias pendientes de las sociedades y entidades con personalidad jurídica disueltas y liquidadas en las que la legislación limita la responsabilidad patrimonial de los socios, partícipes o cotitulares se transmitirán a éstos, que quedarán obligados solidariamente hasta el límite del valor de la cuota de liquidación que les corresponda y demás percepciones patrimoniales recibidas por los mismos en los cuatro años anteriores a la fecha de disolución que minoren el patrimonio social que debiera responder de tales obligaciones, sin perjuicio de lo establecido en esta Norma Foral para supuestos de responsabilidad de dichos socios, partícipes o cotitulares.

Las obligaciones tributarias pendientes de las sociedades y entidades con personalidad jurídica disueltas y liquidadas en las que la legislación no limita la responsabilidad patrimonial de los socios, partícipes o cotitulares se transmitirán íntegramente a éstos, que quedarán obligados solidariamente a su cumplimiento».

«2 En los supuestos de extinción o disolución sin liquidación de sociedades y entidades con personalidad jurídica, las obligaciones tributarias pendientes de las mismas se transmiti-

onuradunak diren pertsona edo entitateei eskualdatuko zaizkie. Arau hau nortasun juridikoa duen sozietate eta entitate baten aktibo eta pasibo osoaren edozein lagapenetan ere».

«6. Artikulu honetan aipatutako sozietate eta entitateen urraketengatik bidezkoak izan litezkeen zehapenak haien ondorengoei exijituko zaizkie, aurreko apartatueta ezarritako eran, eta, bidezkoa bada, artikulu honen 1. apartatuan jasotakoaren arabera jarritako mugaraino».

Hiru. Honela idatzita geratzen da 41. artikulua 4. apartatua:

«4. Erantzukizuna ez da zehapenetara iritsiko, foru arau honetan edo beste batean ezar daitezkeen salbuespenetan izan ezik.

Erantzukizuna zehapenetara iristen bada, zordun nagusiak foru arau honek 192. artikulua 1. apartatuan jasotako murrizpenerako eskubidea izan duenean, zordun nagusiari egokitu dakiokkeen murrizpena aplikatu gabe bidezkoa den zenbatekoa izango da zor eratorria, eta erantzuleari adostasun tramitea emango zaio erantzukizun adierazpenari buruzko proposamenan.

Foru arau honek 192. artikulua 1. apartatuan adostasunagatik jasotako murrizpena egingo zaio. Erantzuleak lortutako murrizpena tramite gehiagorik gabe exijituko zaio, baldin eta edozein errekurtso edo erreklamazio aurkezten badu erantzukizun adierazpenaren aurka, erantzukizun eratorpenaren edo likidazio eratorrien bidez kotasunean oinarrituta.

Apartatu honetan jasotako murrizpena ez zaio aplikatuko foru arau honek 42. artikulua 4. apartatuan zorren ordaintzatik eratorritako erantzukizuna dagoenean.»

